

Donostia : Bidasoa-Txingudi : Oarsoaldea : Buruntzaldea : Tolosaldea :
Goierri : Urola Garaia : Urola Erdia : Urola Kosta : Debagoiena :
Debabarrena : Al día

Noticias de

Gipuzkoa

Arkaitz Apalategi ataundarrak irabazi du Igartubeiti baserriko argazki rallya

OSTADAR MENDI TALDEAREN LEHIAKETAKO LEHEN SARIA , BERRIZ, LUIS FRANCISCO LLAVORIRENTZAT IZAN DA

PSE-EE PSOE

Socialistas Vascos Euskal

Socialistak

www.socialistasvascos.com

EZKIO-ITSASO. Atzo eguerdian Igartubeiti baserriko argazki digital lehiaketako sari banaketa ekitaldia izan zen. Lehen saria Arkaitz Apalategi ataundarrak irabazi du, bigarrena Carlos Mediavilla urretxuarrak eta hirugarrena Ezkio-Itsasoko Ainhoa Mendizabalek.

Ekitaldi hau Sagardo Astearen barne antolatu zen, Astigarragako Sagardoetxearen eta Legazpiko Ikatz argazki taldearen laguntzaz. 13 lagunek parte hartu zuten eta epaile lanak Xabi Otero argazkilari ezagunak egin ditu.

Anuncios Google

Apalategik 150 euro jaso ditu, Mari Jose Telleria alkatearen eskutik; Mediavillak 120 euro, Sagardoetxeako Leire Alkortaren eskutik; eta Mendizabalek 100 euro, Ai-tziber Etxezarreta zinegotziaren eskutik.

Baserriko produktuak ere eman zaizkie. Sari banaketa ekitaldiaren ondoren lehiaketara aurkeztutako lanak proiektatu ziren eta luncha eskaini zen. Gainera, argazkiak ikusgai jarri dira.

Atzokoa ez da egunotan eskualdean izan den sari banaketa bakarra. Ostiral gauean Ostadar mendi taldearen argazki lehiaketako sariak banatu ziren Zumarragako Zelai Arizti aretoan. Aurten sekula baino lan gehiago aurkeztu dira eta horietako batzuk oso urrutitik bidali dituzte, gainera.

Sei sari banatu dira, guztira 1.400 euro. Bildumarik onenari saria Luis Francisco Llavori zumaiarrak irabazi du, bigarren bildumarik onenari dagokiona Logroñoako Angel Benitok eta hirugarrenari dagokiona Orozkoko Gaizka Bilbaok.

Herriko bildumarik onenari saria Carlos Mediavilla urretxuarrak irabazi du. Horretaz gain, Xabier Ormazabal Saria eman da: alpinismoaren izpiritua hobe islatu duen argazkilaria Carlos Hernandez gasteiztarra da. >A.Z.

Haznos tu página de inicio | Visite también www.noticiasdealava.com | www.noticiasdenavarra.com

© NOTICIAS DE GIPUZKOA

Avda. Tolosa 23 · 20018 Donostia · GIPUZKOA · Tel 943 319 200 · Fax Administración 943 223 900 · Fax Redacción 943 223 902

Enlaces patrocinados: Inmobiliarias | Disfraces | Agencias de publicidad | Tiendas de electrónica | Cirugía estética | Inmobiliarias | Asesorías | Peluquerías | Muebles | Clínicas | Seguridad | Mudanzas | Viajes | Hostales | Taxis | Hogar | Hoteles | Cerrajeros | Farmacias | Rótulos | Armarios | Trabajo | Hosting | Ocio en Gipuzkoa | Hoteles en Madrid | Hoteles en Barcelona |